


MarraziOak

18



DIRECCIÓN GENERAL DEL LIBRO,
DEL CÓMIC Y DE LA LECTURA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Goierko
eta Etorri Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



2026ko ekainaren 8tik 12ra
Undermount-en (Igeldo, Donostia)
Galtzagorri elkarte
galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus
943 471 487

MARRAZIOAK XVIII

TAROTA

Arkanoetatik xehetasunetara

UXUE ALBERDI eta AINARA AZPIAZU

ZER:

XVIII. MARRAZIOAK tailerra Ainara Azpiazu “Axi” ilustratzaileak eta Uxue Alberdi idazleak gidatuko dute **“Tarota. Arkanoetatik xehetasunetara”** goiburupean. Beraz, idazle-ilustratzaile gidari bikote berria ekarri dugu Ilustratzaileentzako Topaketetara. Biek ala biek Marrazioak-en parte hartu izan dute. Tailerrean, tarot-karta sorta hartuko dute oinarri, ilustrazio obra baten sorkuntzarako egitura bat emateaz gain, sormenerako askatasuna ere eskaintzen duelako.

Tailerraren hari nagusia kartetako pertsonaien arteko balizko harremanak eta kartetan agertzen diren egoerak arakatzea izango da. Bi hari horiei tiraka istorio desberdinak sortu ahal izango dituzte parte-hartzaileek.

NOLA:

Tailerrean zehar, egile ugariren lan ilustratuak aurkeztuko dizkiete gidariek parte hartzaileei, sormenaren pizgarri izango direnak. Ohi denez, bost egunetan zehar, idazketa zein ilustrazio ariketak egingo dituzte, literatura eta ilustrazio mailan motibagarriak izango zaizkienak.

Tailerraren azken ariketa gisa, testuarekin batera ilustratutako hiru karta sortzea proposatuko diete irakasleek parte-hartzaileei. Hiruko sorta hori etorkizunean liburuetarako (album, komiki edo beste euskarri batzuk) istorioak sortzeko baliagarri izango zaie.

IRAKASLEAK:

Uxue Alberdi Estibaritz

Ainara Azpiazu Aduriz "Axi"

NOIZ ETA NON:

2026ko ekainaren 8tik 12ra, Undermount-en (Aita Orkolaga pasealekua 46, Igeldo, 20008, Igeldo). Donostiako autobusen 16-Igeldo lineak parean du geltokia. Linea horretako autobusak Donostiako Boulevard zumarditik abiatzen dira.

Ordutegi jarraitua izango du tailerrak: **10:00etatik 18:00etara**, bazkaltzeko ordubeteko atsedenaldiarekin. Parte-hartzaileek beren bazkaria eraman dezakete, bertan bazkaltzeko aukera dago eta.

Asistentzia derrigorrezkoa da: parte-hartzaileek tailerraren saio guztietara etortzeko gai izan eta horretarako konpromisoa hartu behar dute.

NORENTZAT:

Gehienez 10 irudigilek hartuko dute parte.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Euskaraz ulertzeko gai izatea ezinbestekoa da.
- Galtzagorri elkarteko bazkide izatea baloratuko da.
- Euskal Irudigileak (APIE-EIEP) Elkarteko bazkide izatea ere kontuan izango da.
- Parte-hartzaileek ez dute zertan argitaratutako lanik izan behar.

ESKAINZA:

Topaketa hauetan **formazioa doan** eskainiko zaie irakasleek aukeratzen dituzten 10 lagunei. Guztira, 35 orduko tailer praktikoa egiteko beka bana eskuratuko dute.

IZEN-EMATEA:

Ilustratzaile bakoitzak bere dosierra edo bere 10 irudiz osatutako lagin bat aurkeztu beharko du, bere estiloa, estetika eta ildoak irudikatzen dituztenak.

Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko du:

- Curriculumuma
- NANren kopia bat
- Posta elektronikoaren helbidea
- Telefono zenbakia

Dokumentazioa wetransfer bidez bidali beharko du

galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus–era.

EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2026ko maiatzaren 4a** izango da.

Aukeratutakoei 2026ko maiatzaren 11ko astean erantzungo zaie.

ANTOLATZAILEA:

Galtzagorri elkarte

BABESLEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

LAGUNTZAILEA:

Kultura Ministerioa

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:

943 471 487

www.ibbygaltzagorri.eus / galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus